

HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86

32. zenbakia

UDAL EUSKARA - KONTSEILUA

60 pta.

1989. uztaila



JOSE GRAZENA AGIRREGOMEZKORTA, Finlandia, Londres, eta Paris aldean ibili ondoren hondarribiar bihurtu den margolari irundarra dugu hizketalagun ale honetan: Hondarribiko paisaiaren kolore gardenak gutxi bezala jasotzea lortu duen artista.

- Margarita Aginagaldek 106 urte bete dituela eta, bere izakera marrazten digu Lourdes Zubeldiak.
- Ekologiako topaketek Bakartxo Arrizabalagaren luma ekarri digute aldizkarira.
- Juan San Martin, Arartekoa, ipiztiku baserriaren izenaz mintzo da.
- Hondarribiko txistularien historia gogoratzin digu Martin Ugaldek.
- Lukarte Van Remoortere-k egindako ipuin batek Ganteraino garamatza arrantzale baten a'abarekin.
- Hilario Martinezek hegalmotzetako kronika egiten digu.
- Kanposantutaren azken berriak ematen dizkigu Sorkundek.
- Hondarribiko kutxa-entregaz eta Lekeitioko Kaxarrankaz ari zaigu Juan Jose Lapitz.

HONDARRIBIKO HISTORIAREN KUTXA

Uztailaren 15ean eguerdiko hamabi t'erdietan jendez bêtea zegoen Udaletxeko Areto Nagusia. Mahai buruan Diputazioaren ordezkariak, herriko Alkate eta zinegotziak, Herriarren artean ere aurpegi ezagun asko. Denak, Florentino Portu bere 91 urteetan eta beronen lana omendu eta esker ona ere agertu nahian. Adiskidetasun eta poz giro lasaia nabari zen bilkuran.

Aurkeztutako lana *Hondarribia: Notas históricas y curiosidades* liburu berrargitaratua zen, lehen *Fuenterrabia: Notas históricas y curiosidades*, hasta 1969 zena. Bigarren argitalpen mardul hau, 1975ekoa baino osoagoa mamiz, eta Valverde inprimategiaren lan txukunez dotoreagoa azalez, argitaratu digu Hondarribiko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz. Ez bait du obrak gutxiago merezi.

Afonso Oronoz Alkatearen hitzek ireki zuten batzarra Udalaren izenean.

Ondoren, Javier Aranburuk, Florentino Porturen bizitza eta beronek Hondarribiaren historia biltzen egin duen lana gogoratu zizkigun. Florentino gidari, maisu eta adiskide gisa aurkezturik. Gizon serio eta atsegin honen dotoretasuna, fisikoa eta izpintuzkoa, ere aipatu zuen. Bilketa lanari lotuz, hamasei mudi direla esan zuen, Florentinok 70 urteetan jutilatu eta gero idatzitakoak. Hain zuzen ere, horietan muna eta laburpena biltzen du liburu

berriak. Florentino lana, ordea, zaila da izkutatzen eta horren aitormenez hainbatetan jaso dituen omenaldien berri ere eman zigan Aranburuk. 13 urte bete arte linternaria eta pintura lanetan bere aitari laguntzen ari zuen ondoren udaletxean sartu zen langile, eta, gero eta ardua handiagoak harturik, idazkaria eta diruzain izan zen urte luzeetan. Musika zale izaki, bandako partaide eta zuzendari ordea ere izan genuen. Eta txistularia. Artxibo lanetan Serapio Mujikak kutsatu zion paper zaharrekiko zaletasuna eta handik aurrera gai izan zen burutu duen lan luzeari ekiteko.

Imanol Muruak ere Florentinoren lanaren balioa goraiatu zuen herriaren zerbitzutan egindako administrari eta funtzionari lana azpimarratuz bereziki. Herri bakoitzean behar litzaitekeela Florentino Portu bat esan zuen, herriaren historia biltzeko.

Azken hitzak Florentinok berak eskaini zituen, bilduei eta herri osoari eskerrak emanez eta oraindik ere lana osatzeko asmoak ere agertuz. Txaloea sutsuak jaso zituen.

Horra, bada, Hondarribiaren historia era osoan eta fidagarienean gordetzen digun liburu oparoa, edozeinek kontsultatu beharreko kutxa aberatsa, buxun-txukun berrargitaratua.

Zorionak eta eskerrak gure aldetik ere Florentino Porturi!



MARGARITA AGINAGALDE

Zertaz idatzi pentsatzen nengoeiarik burura etorri zait, gai berezia bezala. Hondarrribian eta Gipuzkoan guzian daukagun pertsona zaharrena, ehun eta sei urtekoa, alafedea!

Harriiduraren ondoan betiko galdara sortzen zaigu: Zein sekretu erabili eta bizi izan ote duen Margarita Aginagaldek urte horietara iristeko. Ez da erraza erantzuna. Diotenez, gizona omen da izakirik harrigarriena bere buruan daukan kilo exkaxeko adimen muintatik. Eta oraindik ez omen dira honen sekretu guziak argitu.

Hau horrela izanik, ez naiz nor Margaritaren bizi luzean alderdi horretatik zerk eusten dion jakiteko, baina ziur gaude ere pertsona bakoitzak askatasun eta limitazio neurtu batzuen jabe dela eta eguneroko bizitzan erabiltzen dituela, batzuetan bizi luzaizeko eta besteetan laburtzeko. Dударik ez da Margaritak, eguneroko jokoarekin, asko lagundu duela luzaizeko.

Gutxi gora-behera orain dela berrogei urte arte etxeetan jaiotzen ziren umeak, eta, berak esan zidanez, hain erditze gogorra izan zuen bere amak bera sortzeko hiltzat utzi zuten Margarita bazter batean. Eta horra nondik ehun eta sei urterekin oraindik bizirik!

Tiki xamarra baina pixkorra. Hizketan aurre aurre begiratzen zuena eta begiritzera behartzen zuena. Gauzak errotik eta funtsez egiten zituen. Egocera etortzen zenean aurrera jotzen zuena.

Ezkongai izanik beti ume artean ibiltzen zen, nahiz katalan bere ilobekin, Batzokikoak eta Katekesiskoekin ere. Azkeneko ume hauek "elizako aguzila" deitzen zitoten. Behin, katekesian, pix egiteko gogorekin bata bestearen atzetik ilea hartzen zituela ikusi zuen eta, geroztik, hasi baino lehenago, ondoko ezterrakara bidaltzen zituen denak pix egitera.

Bere iloba Tantonek (G.B.) kontatu zidan haxe. Behin Guadalupeko elizara igotzera behartu zituen ilobak, beran aldaera lorez apaintzen laguntzera. Margarita Limogesko pitxar ederretan loreak jartzen ari zen bitartean, umeek beren ezinegonean jo ta pitxar eder haiekiko bat lurrera bota zuten mila puska eginda gelditurik. Margaritari, hura ikusirik, nerbioak gailentzen zaizkio eta zapata bat eskuan hartuta Tantonen atzetik hasten da korrika, hanka bat hutsik eta eskuan zapata, Errandaño segika. Ez duh agutzu behar orduko bideak ez zirela gaurkoak bezain leunak. Gertaera honen ondoan gaurko "futiak"... Eta gehiago ezinean oihukatzen omen zuten: "Hego, hego! Hik hartu bihar ttuk itxera joatian!".

Beste behin, egoerak halakoak bait ziren, Margaritak ere nahi izandu zuen bere etxean Jesusen Bihotzaren intronizazioa. Horretarako aita Bernabe ekarri zuen eta beren ilobak bertan parte hartzera behartu zituen. Aurretik trilla bere iduriarekin, Margarita eta lagunak segidan eta gero ilobak, "Jesus Onaren" kanta



Margarita, 104 urte zituela.

abestuz etxeko gela guztietan sartu zen prozesioa. Gertaera honen bukaerarako jangelako apalean bandeja bete galletak zegozen, eta, jakina, ilobek handik pasa bakoitzean alzapakada bandejara. Baina Margaritaren begiak ez ziren il egotekoak eta prozesioa pasilloan gurtzaten zen bakoitzean okabilerekin kankarreak ematen zien kasko gainean. Baina, nola kanta oso luzea zen, berdin jarraitu zuten ilobek, kankarreako ez hartzeko izebaren aurrean makurtzen zirela, kantuaren hitz ederren artean bandeja hustuz ziholakarik.

Nik uste dut beti gazte sentitu dela Margarita. Begira bestela. Bere lagun izandako bat etorri zitzaion bixitara orain dela bi urte eta nola aspaldian ez zuten elkar ikusi ez zuen lehen-bixikitik ezagutu eta galdetu zuen:

-Zein da?

Eta ilobak:

-Oi, Joxepita, zure laguna...

-Zenbat, zenbat urte, Joxepita?

-Larogeita hamalau.

-Larogeita hamalau? Jesuuu! Hori zahar-tzila! ¡Qué horror!

Ehun eta lau urtekoak larogeita hamalaukoari...

Abertzale sutsua, Hondarribiko Batzokia sortu zenean hantxe zegoen Margarita. Erbesteko bihotz mina ere sentitu zuen. Eta galdere-tan nago, ea gaur Margarita biziko ote zen bihotz oneko pertsona hark Batzokian zeudenen izenak, hurrengo egunean izen haien bila zihozazela jakinik, erre ez balitu.

Hondarrribian oraindik berdura jateko oso zaleak ez ginela, Margaritak gehien bat arraila eta berdura maite omen zituen. Katarroak uxat-

zeko, berri, berbera hartzen omen zuen tisa-na bezala.

Dударik ez da Margaritak oso ondo erabili dituela bere askatasuna eta limitazioak, beti zerbitutatu antuz, katalan, baina beti jendez inguratua. Gaur ere ilobez inguratua bizi da, bere etxean, eta nola! Ez zait hitz egokirik ateratzen laguntza hori merezi duen neurrian goretzeko, ez bait da, nere ustez, ez dirurik, ez besterik, ehun eta sei urte arte zainduko duten askorik... horren goxo eta ixilik.

Lourdes Zubeldia

OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

Uztailak	24 - 30: Mayi
31 - Abuztuak	6: Iraola
Abuztuak	7 - 13: Erauskin
14 - 20: Mayi	
21 - 27: Iraola	
28 - Irailak	3: Erauskin

Mayi, Alm. Alonso Kalean - 642191
Iraola, J. Ugarte Kalean - 641027
Erauskin, S. Pedro Kalean - 641018

TXANDAKO OKINDEGIAK

Uztailak	23: Arratibel
25: Garmendia	
31: Martinez	
Abuztuak	6: Arratibel
13: Garmendia	
15: Martinez	
20: Arratibel	
27: Garmendia	

Arratibel, Zubieta Kalean - 641975
Garmendia, Santiago Kalean - 641136
Martinez, Kale Nagusian - 641212

EUSKARAZKO MEZAK

Egunero arratsaldeko 7etan Portuan

LARUNBATETAN:


Arratsaldeko 7,30etan Portuan

IGANDEETAN:

Goizeko 8,30etan Betherranen
9etan Amuten
9,30etan Guadalupen
11etan Portuan

HONDARRIBIKO TXISTULARIEN HISTORIA

EKO, EKO, EKO, EKO



Ekologiako erakusketa Gipuzkoa Plazan.

Garai bateko anuntzio zahar hark beza-la, bazter guztitara an da zabaltzen azken denbora honetan ekologiaren hotsa; ekologia modan jarri dela dirudi, guztion ahotan baitabil eko-hots hori, solasgai eguneroko eta arruntenean ere (hau da: eguraldiarena) ezinbestekoa bihurtzeraino: bero hotz, euri, etabaren artean negutailu-efektua, kutsadura, ozono-geruza, tanta hotza, etab. Tarteakaten direlarik. "Lecturas"-en Ingalaterra-ko printze sudur-luzearen argazki baten azpian, hark ekologiak duen arduraz irazkin-borean bat agertuko zaigu, edota nola begelarianoa den zulumurriatuko; egunkaria hartu eta lehenengo orrialdean bertan Gorbachov-ek arma nuklearrak erabat baztertzeak asmoa adierazi duela esango zaigu, aurrerago gobernu-ko Osasun eta Asegurantzia Sozialerako Departamenduak, zigarroek egiten duten kaltea gogoratuko digu, gero diputatu orokorra ikusiko digu umeentzako natur-eskola bat zabaltzen; Sting Amazoniaren aldeko diska bat ateratzekotan dela kontatuko digute ondoren, Iñaki Perurena baleen desagertzeaz kezkatutik dagoela eta udaletxe bateko PP-ko zineziek nola udaleko gobernu-batzordearen proiektu bat atzera bota duten "paisaiaren babes eta defentsarako egitasmorik" ez zekarrelako.

Eko-hots horri jarraituz edo hots hori zabaltu nahiean, gure herriko etxeak ere egin zion ekologiari lekutxo bat azken ekaina honetan: "Ekologiaren I-go Topaketak" izenpean antolatutako baitzuten zenbait ekintza: hitzal di, mahai borobil, erakusketa, konkurtsa, feria, etab. non ekologiarekin edo ekologiak arduratutako zenbaitekin topo egiteko aukera izan dugun.

Lehena izan eta topatze xumea izan da, lehen hurbiltze bat, zenbat egiteko dagoen kontuan hartzeko balio izan zaiguna batez ere, datozen urtetarako abiapuntu. Ez dugu kea asmatu, noski, dagoen keaz hitzeging baizik, eta ekologia modaz pasatzen bada ere, urte luzetan jarraitu beharko dugu dagoen keaz hitzegiten (eta ez hitzegiten baka-rrik, eta ez keaz bakarrik) zigarroen keak baino kea astunago arriskutsuago eta lodia-goak direnak ez baitira egunetik gauera desagertuko, ez aholku batekin geldituko. Abiapuntu beraz, aurtengoa, ezen hurbilen dugun inguruaz besterik ez hitzeginda ere, eta inguru honek leku aparta izateko fama

duen arren, mintzagai ugari izan baita eta zeregin haundien premia larriak agertu agertu ere: Bidasoaren ur gero eta zikinagoa, ibaiari alde orotatik egin eta egiten zaizkion bestelako erasoak, paduren desagertzea, badiako hondartzen egoera kezagarria, arrainen eskasia, Jaizkibel mendia-aren degradazio nabarmena, etabar luzea. Alajai-neko arloa, beraz, ekologiarena, modaz jantzi nahirik hurbiltzen zaionarentzat, ezen lore usain baino ustel, kaka, eta era guztitako zikin usainekin egiten baita topo lehen lehenengotik eta urruti joan gabe. Zabor arte honetan, udaletxeko ingurugiro-azpiatzor-dekook, ekologiari usaina hartu nahirik, aurtengo topaketetan sudur mintzak ondo gozatu eta datorren urtekoelaz hitzegiten hasiak gara. Zuk ere urrango topaketei ibar-on gabe bertatik hasi nahiko bazenu lanean, hurbil zaitez azpiatzorde honetara, izango duzu eta zer egin eta zer usaitunik.

P.D.: Datorren irailak hemeretzi izan-gu, bakantzak pasa ondoren, urrango bilera, baina lehenago ere bila gaitzakezu edo udaletxean edo erredekazko honen bidez.

Bakartxo Arrizabalaga.



Ainara Ancisar Idazlanetako saria jasotzen.

IPIZTIKU

Edonork dakien bezala, Hondarribiko baserri baten izena da **Ipiztiku**. Bat batean begiratuz, izen arraroa edo bitxia duiritzen zaigu. Etxe horren lehen berria Isastik eman zigan 1625. urtean idatzi zuen liburuan, "**Castezar ó Ipiztiku**" izendatuz. Handik laster, 1638. urtean hiriri jarri zioten hesian, barnean ziren seme jatorren artean agertzen zaigu Miguel de Lizardi Ipisticu. Beraz, badirudi etxeaz gainera deituratzat ere erabiltza zela. Baina euskal deituren zerrendak eta ikerketak egin dituztenen liburuetan ez da agertzen Ipiztikurik.

Ipiztiku lehen aldiz entzun nuenean, oso bitxia iduritu zitzaidan. Gure egunotan hain arruntak ez diren hitzak, ordea, beharrezko zaigu agiri zaharretan oinarriturik aztertzea. Orain, ustetrik gutien nuenean, hara non aurkitu dudán izen hori. Aurten, Ubillos idazlearen mendeurrena ospatzeko Euskaltzaindiak egile horren **Christau doctrin berri-earleaa** (1785ean argitaratu zena) Azkue Bibliotekan zuen aletik faksimil batean berargitaratu duelarik, liburuaen 105-106 orrialdeetan honako hau irakur daiteke: "eliz bacothean Ipiztiku edo Obispo bat", eta ondokik beste honako hau: "Aita Santua deritzana, Jaicoac ala nai ta da Ipiztucu guzien lenengoa". Ondoko orrialdeetan ere beste honako hauek irakur daitezke: 108.ean "Apostolucac eracutsi zuena igaro zan lenengo Ipiztiku-etara", eta 176.ean berriz "...hondra ditzagula Ipiztucac edo Obispuac".

Hara hor argi eta garbi **Ipiztiku**ren esan nahia. Bertatik, orain ohartu naiz Axularrek 1653. urtean argitaratu zuen **Gero** liburuaen "Gomendiozco carta" haretan Bertrand de Echaus apezpikuari egin zion eskaintzan esaten, zionaz: "...que ere Baionaco Ipiztiku cinenean" esaldiaren muinean nola hitz hori. Aldiz, liburuaen barnean, 393. orrialdean berriz aipatuko zuela lehen hain bitxia zitzaidan hitz hori "Hugo Ipiztiku" hura izendatzean.



Ipiztiku

1857an Gipuzkoako Diputazioak argitaratu eman zuen **Nomenclátor** haretan Hondarribiko bi etxek daramate izen hori, bata da "Ipisticu" eta bestea "Ipistcunea". Argi dago lehenengoa dela zaharra eta bigarrena handik alde zuen familioreen batek erakia. Florentino Porturen **Fuenterribia. Notas Históricas y curiosidades** deritzan liburuan aurkituko ditugu biak, 306. orrialdean sagardotegiak aipatzean: bi etxeotan bai ziren sagardotegiak 1934. urtea baino lehen. Ipiztiku Arkoll goitiki Jaizubia aldera eta Ipiztikunea Madalen-gainetik Akartegi partean.

Orain, **Hondarribia** aldirikariaren 9. zenbakian irakurria dudanez (1986ko Abendukoaren 2. orrialdean), ahokkeraz **Epiztei** bezala ere erabiltzen da, itxura denez. Baina, era jatorra, zalantzarik gabe, **Ipiztiku** dugu.

Hondarribian bada Apezpiku kalea (Calle del Obispo), bertako hizkera jatorrean Ipiztiku hobeto letorkiona. Kale horren izena bertako seme ospetsu baten oroitzapenean

jarria da. Cristóbal de Rojas Sandoval y Alaga (1502-1580), bere garaian ipiztiku zena Oviedo, Badajoz eta Córdoba, Trentoko kontsilioaren bigarren aldiari partaide izana eta Sevillan Artzipiztiku zelarik hila, Valladolido Cigales-en eta Lermako San Pedron hobiratu.

Baserriaren izena hura Ipiztiku egin baino lehenagokoa dela esango nuke, zeren izen hori aginetan lehen aldiz hark hogetiru urte baizik ez zituen aurkitzen bai da.

Hondarribia honen 15. zenbakian (1987 Utzaila) argitaratu nuen "Zenbait titulu eta ofizio Hondarribiko etxe izenetan", non aurkeztzen nituen **Viscundinea, Bachillereña, Soldadunea, Consulaeña, Arguineña, Arozeña, Ballestarieña, Tanbolineña, Herrereña** eta **Telleria**; eta orain horietan beste hauek erantsi beharren aurkitzen gara: **Ipiztiku** eta **Ipiztikunea**.

Juan San Martín

AMUTEN ETXE BAT ERREA

Ekainaren 29an, San Pedro egunez, arratsaldeko 6:30etan Amuteko etxe batek su hartu zuen. Sua, 35 zenbakiko 3. bizitzan, ezkerrean, hasi zen Miguel Ugarteren etxean. Bertan Ahmed Idwaziz eta Bacha Zawaf senar-emazte marrokiarrak bizi ziren eta dirudienez andreaki, bakarrik zelarik, su hartu omen zion paderak. Larritasunean balioira aterata ezin omen zuen atzera egin eta gazte batzuek sokaz jaitsi zuten. Gurutze Gorriko ambulanzian eraman zuten ondoren. Goiko bizitza erabat koxkaila dekl-

tu zen eta suhiltzaileen ur bonbek ere kalte handiak egin zituzten bigarrean, goiak erori bait ziren, eta lehenengoko sukalde batean ere bai. Beste familiak sendeen etxeetan hartu zituzten, baina Dolores Barca eta haren seme-alabak gau hartan nora joan ez zeukatelarik herriko ostatu batean hartu zituzten udalaren aginduz. Bihamunean ere zailtasun handiak izan ziren ezer konpontzeko San Martzial eguna zela eta.



HONDARRIBIKO TXISTULARIEN HISTORIA

Hondarribiko beste arazo askotan beza la, Txistularien instituzioari dagozkien berriak ere Florentino Portu jaunagandik jaso ditut.

Herriko Artxibo historikoan **txistulariaz** agertzen den lehen notizia **1737koa** da. Orain dela bi mende eta erdi aipatzen dira: Juan Bautista de Garam, "tanboril" bezala, eta Juan Macuzo, "tanbor", la mende erdi bat gero, **1784an** agertzen da: Francisco de Lizarriturri, "tanboril". Eta urte jakinik gabe bada ere, hurrengo aipatzen direnak bi hauek dira: Juan Miguel de Escamendi, "tanborilero", eta Juan Antonio de Echezarreta, "tanboril".

Hurrengo data ezaguna: **1795 da:** urte honetan esaten da Gabriel Sagardia eskaintzen dela herriko "tanboril" izateko.

Sei urte gero: **1801an**, Juan Miguel de Escamendik eskatzen du "tanborila"ren soldata. Lau beranduago, **1805an**, ageri da Francisco Ignacio de Enriquez izeneko txistularia, eta 1849an udalbatzak izendatzen du honen laguntzaile gisa Jose Domingo de Aranzabal. Honek agintari, Enriquezen laguntzaile izendatua izan zela eta propietatean izenda zezaten eske instantzia "asko" aurkeztu bazuen ere, ez zuen erantzunik jaso, eta, bestalde, beste bat aurkeztu da: Juan honetarako: Pedro Jose Camara, eta 1853go abenduaren 27an udalbatzak plaza hori lehiakide bidez (lehen aldez hondarribian) eskaintzen da: ez dakigu zergaitik ez den oposaketa honetara Aranzabal agertzen, eta bai bi lehiakide berri: Ambrosio Sagarzazu eta Pedro Jose Camara.

Bien arteko aukera zaila izan zen, non-bait, zeren eta epaimahaikoek: Juan Ignacio Echaide eta Jose Irureta jaunek, Salomonen antzeko erabakia hartu zuten: Ambrosio Sagarzazuk zolagari jo zuela txistua ("que habia tocado con más finura"), eta Camarak: "ha tenido más arranque". Gauzak honela, udalbatzak 1854go maiatzaren 22an izan zuen bileran Pedro Jose Camara izendatzen du lehen tanboril, eta Ambrosio Sagarzazu, bigarren.

Harrez gero, 1969 arte herrian txistulari-tzan aipatzen diren **izen berriak** hauek dira: 1872tik aurrera: Adolfo Ortiz (1899an hil zen); 1877 aurrera: Francisco Sagarzazu; 1899an izendatua: Jose Maria Arbelaz Zufiria; 1909an: Celestino Aramendi Urruzola; 1912an: Agustín Zubeldia Arregui; 1915an: Florentino Portu Iribarren; 1918an: Fermin Azpiroz Aristizabal, eta 1923an: Gabriel Araneta Burguete.

Txistularien eginkizuna.

Txistulari eta tanborileroen eginberraria hau izaten zen:

-Kale-jirako "Zortzikoa" jo.



Ezkerretik hasita: Kaio Lasa, Agustín Zubeldia, Florentino Portu eta Celestino Aramendi.

-Jaiegun goizetan Alamedan eta arratsaldetan Udaletxeko arkupetan dantzagarri ziren piezak jo: **garizuman ezik.**

Udalbatzak edo Alkateak berez seinalatzen zituzten egintzetan agintari gorenei egindako harreretan, eta udalbatza plenoan agertzen zen ospe handiko Eliz-jaietan, inaugurapenetan eta jaietan parte hartu.

Garai batean, txistu soinuarekin dantzaldi handiak eratzea izaten zen olagabide gutokoa.

Ihauteri aurreko arratsalde guztietan: ostegun gizen egunean eta ihauterietako hiru egunetan: igande astelehen eta astearteetan, eratzen ziren dantzaldiak: Kale Nagusian, goizeko 8tan eta 11tan, eta Yrriarena arratsaldeko 4tan, dantzagarriekin;

Gazte talde handiak biltzen ziren. Hara 1918-1925 bitartean txistulari Bandak zituen ohiurak:

-Alkate eta zinegotzi jauneri Alborada jotzen zitzairen jaiegun berezietako bazkalondetan, eta agintariak beti erantzuten zuten diruz edo kale-kopaz.

-Gainera, adi egoten ziren txistulariek herriko batzuen urtebetzetan eta egunetan; hauen propinak jasotzeko egun seinalatuak; San Jose, San Pedro, Santiago, San Inazio, abuztuaren 15a, irailaren 10a eta abenduaren 8a izaten ziren.

jantzita, **ordurarte Musika Banda joan ohi zen.**

Hara txistulariak nortzuk ziren:

Cayo Lasa Zala jauna, 1go. txistua.

Agustín Zubeldia Arregi jauna, 2gn. txistua.

Florentino Portu Iribarren jauna, silbota.

Celestino Aramendi Urruzola jauna, atabala.

Hara estreinatuta zuten uniformeak: Txarolezko oinetakoak, "hebilla" edo belarriekin; galtzerdi gorriak; galtza labur urdinak; txupin gorria, frak eta bikornioa.

Uniforme hau Donostiako Pérez Egea etxeak egin zuen.

1959an egin zen uniforme berria, eta beraz irailaren 7an bertan estreinatuta zuten Txistu Bandak: Abarrak, artil zurizko galtzerdiak; galtza kaburak, txupin gorria, kapa eta bi puntako kapela.

Hara garai honetan Hondarribiak zuten Txistu Banda;

Alberto Lasa Badiola jauna, 1go. txistua.

Pedro Arzacurrutia jauna, 2n. txistua

Jose Luis Aguirre Errazquin jauna, silbota


Manuel Lusa Velasco jauna, atabala.

Martin Ugalde

Uniformea

Lehenengo aldez, 1914go irailak 8, herriko festetarako, jantz ziren uniforme txistulariak: Udalbatza korporazioan joan zen eliz nagusira honen berriztatzea ospatzera, eta agintariaren aurretik Txistulari Banda galaz

***Fuenterrabia: notas históricas y curiosidades hasta 1969.**



Hondarrribian uda etorri dela esateak badu, besteak beste, pinturarekin zenikusi-rik. Negu partean isilean eta atek erdi ixita zituzten erakusketa-gelek eskeintzen dizkigute, zabal zabalik, kolorez gainezka, bertako eta kanpoko margolarien emaitza.

Galeria horietan, izan ketu ditugun pintoreen artean bada bat, Kale Nagusiko paisaiarekin bat egitera ailegatu dena, lehenbizi sotoiko azkeneko bizitza baitu etxea, edozein momentutan topatuko baituza kale horretan, bai mandatuak egiten, bai inorekin biagan, bai karpeta beso azpian duelarik *kantflor*en baten bila bere begia bertan finkatzeko: Joxe GRAZENA duzu pintorea.

NANen datuak eman beharko bagenitu esango genuke Iruñen jaiola dela 1927an, Bentasko "Ezurniki" baserrian, ezkondu da dagoela, eta hiru seme-alaben aita dela. Oglibidea (eta bokazioa) pintatzea duela. Eta gehituko genizkioke jasotako sariak, egindako bidaiak...

Berea da hitza:

H: Titikatik omen zenuen arterako zaletasuna...

JG: Bai, baserrian buztinarekin egin nituen irudiak, marrazkiak, bñon nik ez nuen behin ere ikusi ez margoririk, ez eskulturarik. Nere ama kontu eman zen, eta Iruñe andereño bateri esan zion, eta harek Ramon de Faraldori. Harekin pintura ikasten aintu nintzen sei hilabete, Cézanne-ren joarak eta. Nere lehen maisua izan zen. Berak ez ninduen halako edo halako kolorez margotzera behartzen, nik aukeratzen nituen. Gero, Iruñe Akademia Munizipalean, Montes Iturrioren zuzendaritzapean, zortzi urte igaro nituen.

H: Ez zinen geldirik egoteko...

JG: Ez, Madridera joateko gogo izugarria nuen, baina ez nuen dirurik eta ez zegoen bekarik. Baina egun batean loteria tokatu

zitzaidan, 32.000 pezeta, eta honi esker Madridera joan nintzen.

Madriderako *Círculo de Bellas Artes*era ilusio osoz jo nuen. Margotu nahi nuen, ezin nintzen geldirik egon. Gauza berriak bilatu nahi nituen. Vázquez Diazekin topo egin nuen, eta margotzen ikusiz gero San Fernando Akademiarera ez sartzeko esan zidan. Lau urte ta gero Madriderik etorri nintzen. Oteizak liburu batzuka eman zitxididan...

H: Eta Iruñen zinelá bada toki berriak eza-gutzeko modua ematen dizun pertsona bat...

JG: Minez egondu nintzen bolada batean. Eta sendatzaileak esan zidanean margotzen pixkanaka posible nuela hasi, hasi egin nintzen. Nere retratoka egin nuen isplu batean eta jaso nuen Donostiako Novelen saria. Eta hura pintatzen ari nintzen egun batean, kanpora atera nuen argiarekin hobeto ikusteko, eta orduan agertu zen andre finlandes bat *Castillo del Ingles*egatik galdetza. Lagundu nion Iruñera, estaziara ta. Bidali zidan liburu bat, eta nik margo bat. Bere lagunei erakutsi eta asko gustatu zitzaizen. Idatzi nion asko gustatuko zitzaidalá hara joatea. ta baietz, joateko erantzun zidan, eta egondu nintzen haren etxean. Hortik hasi zen dena.

BIDAIAK

H: Orduan Finlandiara abiatu zinen...?

JG: Bai, 1957.ean abiatu nintzen Finlandiara lehenbiziko aldiz. Gero, 1960. urtean ere berriz joan nintzen. Beste hizkuntzarik ez nekien, eta frates pixka batekin joan nintzen hara. Inglesa gero ikasi nuen, Ingleterran.

B: Alditan egondu nintzen Finlandian: 1957. urtean, eta 1960.ean.

H: Hala ere, hor ez ziren bukatu zure bidaiak...

JG: Bueno, 1958an Parisen eta Orleansen, hiru hilabetez egondu nintzen. Gero, Madrideren ere izand u nintzen, eta ondoren Londresera joan nintzen. Han egon nintzen zazpi hilabete.

H: Zer egiten zenuen: margotu, ikusi, harremanak...?

JG: Bai, ikusi, margotu... Orleansen egond u nintzen akademia batean. libre. Hemendiki eraman nituen kuadro batzuek, eta presentatu nituen *Bellas Artes*en *Pansen*. Dirua bukatu zen eta Iruñera bueltatu nintzen. Iruñen nintzela jaso nuen eskultut bat Pariseko eskolara joateko. Ez nuen dirurik, galdetu nuen Iruñe udalatzeari beka bat, eta eman zidaten bi mila pezeta, ez zuen balio trená ordaintzeko ere. Hartu nituen, Parisen hila-bete bat pasa nuen, gero handik Finlandiara, han beste hilabete l'ardi. itzuli Pariserá, beste hilabete bat eta gero Iruñera. Nahikoa egin nuen bi mila pezetarekin! Han saldu nituen kuadroak eta hola moldatu nintzen.

H: Inportanteak izan dira bidaiak zuretzako?

JG: Bai, 1957. urtean Finlandiara joan nintzenean, biatatzeko beharra nuen, beste estiloak ezagutu behar nituen, giro desberdina. Bueltatu nintzenean euskal paisajegogo haundiagöz, indar gehiagöz pintatzen hasi nintzen.

Bilaketa bat segitzeko biatu beharra dut, biatze guztiek prozesu berritzailea suposatzen dutela uste baitut.

H: Alemanian ere izandua zara...

JG: Bai, 1979.ean hiru hilabete baka bat eman zidaten Alemaniako Wiesbadenera joateko. Han asko pintatu eta ikasi nuen, eta kritikaren zatí batek oso ondo hartu zuen nere obra. Nere paletak dentsitatean irabazi zuela uste dut.

H: Denboran atzera salto eginez, 1965.ean sortu zenuen beste artistekin talde bat...

JG: Nik hemen, Euskal Herrian, Gipuzkoan behintzat, ez zela ambienterik ikusten nuen, eta Tapiari esan nion: "Zergatik ez dugu talde bat egiten?". Eta berak Bizkarondo eta Arozena esagutzen zituela esan zidan. Eta UR taldea sortu genuen. Lehenengo erakusketa San Telmon egin genuen. Orduá arte inork ez zuela erakusketarik San Telmon egin esango nuke. Dena hila zegoen eta horrek bizitasuna ekarri zuen Museoa jendez beteá, margoak saldu ziren, Oteiza, Txillida, denak joan ziren... Handik urtebeteá Oteizak, Txillidak eta abarre Gaur taldea sortu zuten.

Tarragonan, Cordoban, Valladolid, Salamancan, Iruñean eta toki askotan egin genituen erakusketak, 1975. urtean utzi genuen taldea. Datorren urtean 25 urte izango dira eta Eusko Jaurritzaren laguntzarekin erakusketa bat antolatu nahi dugu Donostian, Bilbon, Gasteiz eta Iruñean.



SARIARI

H: Sari ugari jaso dituzun pintorea zara: Novelesentzako saria lau aldiz (1949, 1951, 1953, 1957) irabazi duzu Donostian, Gabeñetako Saria (1959) Donostian, Gasteizen... Baduz anekdotarik sari horien inguruan?

JG: 1951. urtean Hondarrribian lehiaketa bat antolatu zen. Gai modura "Herriko gaiak" zuen. Bigarren saria eman zidaten. Ni Montes Iluriozenkin ari nintzen ikasten, eta hemengo alkateak, Sagarazak, antolatu zuen saria, ea zeinek espresatzen zuen hobeto hemengo poesia, Hondarribiko kaleko gauza hori. Lehenbiziko saria jaso zuen Madrideko margolari batek, bigarrena nik, hirugarrena Montesekek. Gero, neri esan zidan udaletxeko gizon batek zera esan omen zutela: *Bueno, pero ¿cómo puede ser esto si Gracenea es alumno de Montes Ilurioz?* Orduan Sagarazak dietu egin zion Madrideko juraduari, eta harek esan zion: *¿Usted qué quería que expresasen los pintores? - El ambiente y la melancolía de Fuenterriabía. - Pues este joven expresa, eso, por eso le hemos dado el premio.*

HONDARRIBIA

H: Hondarribira bizitzera noiz etorri zinen?

JG: 1970. urtean, otsailan. Seme-alabak hemen jaiokak dira.

H: Hondarribiak beste leku batzuek baino inspirazio handiagoa ematen du?

JG: Kale hokin ikasi nuen nik marrazkiak egiten: perspektiba... Kale Nagusia margotu nuen berrogei aldiz, zertikan perspektiba oso zaila zen, eta orain margotzen dute margolari askok eta ez dakite nola den hori.

H: Zer da inportanteagoa zuretzat, marrazkia, kolorea?

JG: Nerretzat margolari izateko koloreak dira. Zertikan marrazkiak egiten dituenak posible du marrazkilari ona izan, baina pintore txarra ere bai, eta pintore ona eta ez marrazkilari ona.

Nik beti kontzeptu berak ditut: proportzioa, zenbakiak, antolaketa eta edertasuna beti izan dira nere margoetan. Naturan oinarritzen naiz gauzen esentzia jasoz eta koloreen bidez emanez. Irudiak, poesiaz eta musi-

kaz baterik agertzen dira. Ona da oinarri tekniko bat izatea baina sentimenduak eta intuizioak ere behar dira. Bestela ez dago artistarik. Nere prozesuan ballagarriak diren kontzeptuetan kolorea elementu garrantzitsuenetarikoa bat da. Geometriak kolorearen oreka lortzeko balio du.

HIRIGINTZA

H: Artista zaren aldetik horren egokiak ez diren gauzak ikusiko dituzue Hondarribian...

JG: Gauza asko ikusten ditut. Nola egin behar den etxe bat mendiak erakusfen du. Trianguluak, diagonalak, nola erabili. Jaizkibekek, Larunek, erakusten digute nola egin behar den etxe bat. Itelimen eta horrelakoak teilatugabeak dira eta horrelako asko dira hemen. Eta ura sartu egiten da. Pirineo aldean teilatu guztiak zorrotzak dira, Kastilian bestelakoak. Koloreak ere gogoan hartu behar dira. Santiagotxo ondoan ere ijitoenak bezalako kaxotak egiten dituzte, larunbata eta igandeak igarotzekoak. Nik uste dut Hondarribia bastante hondatua dagoela. Hotel Carlos V zen etxe horiek ere Oesteko fuertek dirudite. Handik hartuak direla ematen du, moderno izan nahian. Arkitektura hor ez dago armonian paisajearekin. Alemanian

orain hamar urte izan nintzenezan, okeka batekin, mendi batetik ikusten zena margotu nuen: eliza katolikoa eta protestantea, etxe berriak eta etxe zaharrak, eta nik hangoei esan nien hura margotu nuela etxe zaharrek eta berriek berdintasuna zutelako, kolorean eta iburuan. Eta arrazoia eman zidaten. Armonian zeuden zaharrak eta berriak. Eta hemen ez da horrela.

H: Erakusketak direla eta, noiz duzu hurrengoa?

JG: Movellanen beti ditut margoak. Datoren urrian Donostiako Altxerri galerian izango dut erakusketa bat. Urte 1'erdi egon naiz zain. Zaila zen, margolari onak pasa bait dira hortik, Tapias eta abar. Behin Edorta Kortadi etorri zen hona eta esan zuen: "Zer egiten dute margo hauek hemen? Hauek Altxerri jartu behar dira". Galeria Altxerrikoari esan zion eta hark baietz, baina piska bat itxoin behar zela. Ez dira hemen jartzen ditudan bezalako margoak. Kreatiboak izango dira. Gordeak ditut, ez saltzeko. Jendea iritsas ontzi bat ikustea gustatzen zait. San Pedro kalea... Hori ere egin behar izaten da.

Txomin Sagartzazu



Grazeneatarrak Wiesbaden-en (1979).



IX BIDASOAREN EGUNA

Ekainaren 11an Bidasoaren eguna ospatu zen Hondarribian eguraldi ederrez eta partaidetasun handiz. Trikitilariak, dantzariak, sukaldariak, Eskolaia abesbatzak eta beste hainbatek alaitasun eta euskalduntasun giro ezin jatorragoa zabaldu zuten Portuan, Santiago kalean batez ere. Jai hau duela hamabi bat urte antolatzen zen lehen aldiz. Azken urteotan zenbait eragotzen zirela eta, ospatzen ez zelarik pozaren pozez hartu dugu honen berpiztea. Antolaketa, hemen zenez, Amutzak eta AE-Kren eskutik joan zen.

Egun batetan Karlos bostgarrena Flan-
desetik hondarribira etorri zen bere gortea-
rekin. Denbora gutxi igarotzeko asmoz ba-
zen ere, bi gautan ostatu zen gaur egun
ezagutzen dugun gazteluan. Madria zihoa
bere inperiorako hain beharrezkoa zuen di-
ruaren bila. Garai horretan hor judutar portu-
galdar asko bizi omen zen eta horien dirua
konfiskatzea zen Karlosen gogokizuna.

Hondarribia atsegin zitzaizolako eta Fran-
tzia zeharkatu eta gero atsedean bat hartu
nahi zuelako, Hondarribiko gazteluan seku-
lako festa ospatzea erabaki zuen.

Gazteluzainak egun osoan aritu ziren
gaztelua apaintzen. Areto nagusian tapiz fla-
mendar bitxiak zintzilikatu, haitzari polit eta
dizdiratsuenak atera eta lurtean ekialdeko
alfonbra nabarrak zabandu zituzten. Gazte-
lua lorez beterik zegoen eta musika ezlia
zetorren aretoaren txoko batetik.

Hondarribiko gizon boteretsu eta dirudun
guztiak gonbidatuta zeuden. Horietaiko bat
Kofradiako burua zen.

Jai honetara bere alabarekin etorri zen
eta Karlos bostgarrenaren ondoan eseri zen
afarian. Arrantzale honek aintzina baleen
istorioak enperadoreari kontatzen zizkion bi-
tarlean, Karlosek begiak gizon honen alaba-
rengan ipini zituen.

Benetan neska ederra eta argia zen. Zu-
zen zuzen eserita zegoen eta emeki emeki
hitzigiten ari zen bere inguruan eserita zeu-
den gonbidatuekin.

Herrian neska polit hau oso estimatua
zen. Batez ere arrantzaleen artean, non lan
handia egiten bait zuen, bere ama hil zitzaio-
netik. Gaixo eta behartsuen artean neska
eskuzbait hau oso preziatua zen.

Ordun Karlos enperadoreak arrantzale-
ari galdetu zion ea nahi zuen bere alaba
bere gortean sar zedin. Arrantzalea harrituta
gelditu zen baina ez zen ausartu bere goiko
bail ezezt esatera.

IPIUIN HARRIGARRIA



Honela joan zen Hondarribiko neska hau
Karlosen gortearrekin Flandesa, Gantera
hain zuzen. Baina hilabeteak pasatzen ziren
neurrian, neska hau konturatu zen gortearren
bizimodu fina ez dela beretzat egina. Beraz
Erregeari erregetu zion langintza batetan
sar erazteko, oihalgintzan ahal bazen, bai
bait zekien Flandeseko oihalgintza Europan
guztiaz famatuena zela. Bere eskaera onar-
tu zuen eta hurrengo astean Ganteko lantegi
batetara joan zen.

Hor berehala nabarmendu zen neska
euskaldun hau bere ikasgurengatik. Lan
eta lan aritu zen eta beti prest zegoen gauza
berriak ikasteko.

Gauero ordea, neska goibeldurikager-
tzen zen, bakarrak aurkitzen bait zuen bere
burua eta bere jaioterriaz oroiterakoan ne-
garrez hasten zen. Itzultzeko gogoa sartu

zitzaion baina ez zekien nola bueltatu bere
herria Karlosi beste fabore bat eskatu gabe.

Egun batetan etxetik desagertu egin zen
eta Brujas herria abiatu zen. Morroi bat be-
zala moztortu zen eta merkataluntzi bata-
tan sartu zen Kantauri itsasoruntz abiatutik.
Garai horretan itsasuntziz egindako bidaiak
oso arriskutsuak ziren eta behin baino gehia-
gotran itsasoak utziak irensten zituen.

Honela gertatu zen orduan ere: neska
hura exherantz itzultzen ari zenean egundo-
ko enbata altxatu zen Atlantiar Ozeanoan.
Untzia kulunka erazi eta bapatean sekulako
haize boladak irailu egin zuen. Bertako bi-
dalariak ito ziren, inor ere salbatu ez zelarik.
Baina aita bere alabaren istorioa ez zuen
inoiz jakin izan.

Lukarte VAN REMOORTERE

ARTE ERAKUSKETAK

TTOPARA, Arma Plazan.

KARLOS PUENTE (tintak eta antilnak)

Uztailak 1/20

VALENTIN MANTEROLA (oleoak)

Uztailaren 22an hasi eta Abuztuaren 10a

arte

J.A. CALVO SAGARZAZU (tintak eta aku-
relak)

Abuztua 12/31

MEDIEVO, Gipuzkoa enparantzan. Zuzen-
daria JOSU URTIZBERA.

KONTXA SILUETI ETA PEPE LOPEZ TA-
ZON (keramika artistikoa)

Uztailak 28tik abuztuaren 16a arte.

MARGALL (keramika) eta RAFAEL FUEN-
TES (abaniko margotuak)

Abuztuak 18tik irailaren 4a arte.

ARKUPE, Gipuzkoa enparantzan.

Erakusketa kolektiboa. KERAMIKA.

Abuztua 1/12

JABIER SAGARZAZU Bere lanen bilduma.

Abuztuak 14tik irailaren 31 bitarte.

MENSU. Zuloaga kalean.

NAVASCUES (pintura erromantikoa)

Uztailaren 21a arte.

MENSU (bere lanen bilduma)

Uztailak 22tik abuztuaren bukaera arte.

ITSAS ETXEA

ERNESTO VILLAR (oleoak)

Uztailak 17an hasi eta hilaren bukaera arte.

IXABEL APAOLAZA

Abuztua 3/13

ARTE - EDER, San Pedro Kalean

BELÉN CAMBRONERO

Uztailak 1/abuztuak 30

Bideoan kuskio dira bere lanak.

HIGUER, Gipuzkoa enparantzan.

Zubillaga (Oleoak)

Uztailaren 22a arte.

VENEZUELA (lau margolarien lanak)

Uztailak 23tik abuztuaren 10a bitarte.

ARRECUBIETA (oleoak)

Abuztuak 11tik hilaren bukaera arte.

SUSANA ZALDIVAR eta ZAFRA DE JUAN

Iraila 1/15

MOVELLAN, San Pedro Kalean

García Barrena

Uztailak 21/abuztuak 10

Ortega

Abuztuak 11/irailak 10

San Agustín

Irailak 11tik aurrera.

MOVELLAN, Zuloaga kalean

Larry

Uztailak 16/abuztuak 5

Carlos Gil

Abuztuak 5/26

Irujo

Abuztuak 26/irailak 15

Ruiz de Equino

Irailaren 15 etik aurrera.

OTZAZKI, Arma plaza

Salaber

15ean hasi eta Uztailaren bukaera arte.

HEGALMOTZETAN

Gaurkoan, marea bat nola igarotzen dugun adieraziko dizuet. Atunetan gabitza [hegalmozta hondarribian "cimarrón" gaztelera, "tunus tinus" latinez.

Uztailak 1.-Irteera arratsaldeko hiruretan, jela eta gasoila hartu ondoren Matxitxako aldera beita egitera. Haruntzean kamain sartu eta lotan joaten gara gauerako indarrek hartzeko asmatan.

Zortzirak alderaintsi, sarea prestatu, aingura bota eta alkatasunean afaldu, xatoari bi zarpaldi emanaz.

Ordu bata aldera abiatzen gara etxe aldera eta suete pixka bat izan ezker alba baino lehenago egina dugu beita, bost biberotxiro txirilo tuntuak beteak. Txirilo tartean harripatzen ditugu baita ere txipiroi txikiak, lengudoak, berberinak, rodaballoak etabar. Hau dena ongi garbitu denen artean eta Luis sukaldariak gosaltzeko prejituko ditu edo eltzekarian jateko eguerdian.

Beita egin, dena jaso eta martxa ipar aldera.

Guardia tokatzen zaien bi lagunek lema hartzen dute patrioiak io egin dezan arrain lekura intsi arte. Eskilaia osoa ere lotan joaten da, io egitea izaten baita da beharrik handiena hegalmotzetan gabitzean. Ordu batzuk beranduago eta patrioiak txirrina jotzen jakitzen gara. Kale bat hartu eta nor bere lekutara, brankara batzuk begiak emene dituztelarik, biberon ondoan besteak (aspoteroak) eta gainontzekoak ere eme, hamabost lagun denetara.

Gauzak horrela antolatutik, atun bila hasten gara haruntz eta honuntz egun guztian gelditu gabe, motorrari ia denak emanak. Era honetan, eguneko mila litro gasoil erretzen dira gutxienez.

Patrioi eta bigarrena, puentean, aparatu

guztiak martxan jarrita.

Radioa, beste barkuen berriak jakin ahal izateko.

Radarra, inguruan barkurik bai ote dagoen jakiteko.

Sonarra, ur azalean arrainik bai ote dagoen ikusteko.

Sondarra, azpiko arrainak bilatzeko.

Santandereraino iristen gara atun bila, kostatik berrogeitamar bat mila zabalduz.

Uztailak 2.- Gosaria: txipiroi, berberin, lupi, lengudoa... Eguerdi arte "pasuan", patrioiak dion, bezala atun alerik ikusi gabe.

Leiko zuria bazkaitzeko eta postrea nork bere otartetik, gork kalea. Arratsalde osoa ere berdin arrainik jo gabe, batzuk sare gainean lotan, eguzkia hartzen besteak, krema eman ondoren, noski. Arratsaldean sei zere haundi ikusi ditugu.

Bederatzietan, asper-asper eginda, oizasko erdi bana palatekin jan ondoren, lotara.

Gauean, txandatzuz, bakoitzak ordu bete-ko goardia.

Uztailak 3.- Gauza bera, inork arrainik jo ez, ipar haize gehixko.

Arrautzeak txirriorekin gosarian, leiko gorria bazkanon eta haragia arrozarekin afaritako. Bederatzietarako denak lotara.

Uztailak 4.- Eguraldi kaxkara. Egun guztia euri zaparradapean baxuko haizeak jutzen duetarik, haruntzago trumoi soinu. Zortzietarako afaldu eta nor bere ametsekin lotara.

Uztailak 5.- Goizeko zazpitan jeiki, eguraldi ederra haize tantorik gabe, beroa, trua-rra eguraldia, atunetarako galan-galaku. Gosalduta eta denak gure lekutara, goiz

osoa ezer ez eta... halako batean, hamakak aldera marruak puentetik; arrain leuna arean!, morro gogorral, erne mutiak, atera beita!, korri denak kainaberak hartzera!... Botal! dio patrioiak, hasten da apasterua txirruak botzen salabardoareki, atunak gureganahurbil daitezen. Baxa!, denabax! Hor ditugu atunak barkoa jan nahiean. BOTA eta teink ura jo orduko.

Aire mutiak, egin bi kalar! esaten du patrioiak. Hatzeman arrain horiek!

Horrela bost ordutan gelditu gabe, hatzeman eta hatzeman. Busti-bustiak, izerditan, aurpegia atun odolez zikindurik.

Jendea nekazten hasia da eta norbaitek esaten du: ez amorrik eman dena bete arte! Gure buruan ez da besterik une horretan, arraina eta arraina, hori bait da gure bizia eta gure familiarena.

Bost biberok hustu dira eta beitik gabe gelditu gara, orduntxe baktzen da hegalmotzekin izan dugun borroka gogorra.

Ask! etziok beitarik! Ur xurrua edan ez-taria freskatzeko, nekaturik baina oso konten. Batek hala dio: Badituk hamalau!, besteak: Baietz! hamabost!, etabar.

ETXERA! aurrera motorrari

Orain hasten da lanik gogorrena, arrain dena banaka-banaka jeletan tripaz gora jarzkeko. Horretan igarotzen ditugu ordu franko.

Hurrango goizean, arraina saldu eta etxera, familiarekin goxo-goxo bazkaldu eta arratsaldean berriro beita egitera.

Horrelakoa izaten da hegalmotzetako sasoi. Ah!, eta ez ziren hamabost, hamazapi mila kilo baizik! Arrantza haundia!

BELLAMAR, Uztailak, 7.

Hilario Martinez.

DEMOGRAFIA

JAIOZAK

EKAINA

- 4ean: MARIA Espinosa Towe
Gurasoak: Jose Andres eta Helen
- 5ean: ANDER Lekuona Arandigoren
Gurasoak: Angel eta Visitation
- 7an: HAIZEA Kanpandegi Errazkin
Gurasoak: Jose Manuel eta Ana Isabel
- 8an: JON Azkue Maillo
Gurasoak: Jose Manuel eta M.^a Teresa
- 13an: JULIEN MATHIAS Villalba Weinberg
Gurasoak: Luis Vicente eta Annette
- 29an: QINATZ Urkia Rodriguez
Gurasoak: Jose eta M.^a Pilar
- UZTAILA
- 3an: INIGO Larraya Gonzalez
Gurasoak: Jose Ignacio eta Marta

- 5ean: ESTIBALIZ Gezala Ortiz
Gurasoak: Francisco Javier eta Miren Sorkunde
- 7an: LAURA Gutierrez Roca
Gurasoak: Jose Luis eta Juncal
- 8an: IZARO Rozalejo Gende
Gurasoak: Jose Antonio eta M.^a Carmen

EZKONTZAK

EKAINA

- 3an: Adolfo De Pedro Garrote, Hondarribikoa eta M.^a Angeles Clemente Garcia, Trintxerpekoa.
- 3an: Gonzalo Lebon Vazquez, Hondarribikoa eta M.^a Idolia triarte Exposito, Irungoa.
- 17an: Jose M.^a Zalakin Odriozola, Oiarzungoa eta Esther Hernandez Peña, Hondarribikoa.
- 17an: Jose M.^a Saez Agirre, Hondarribikoa eta M.^a Lourdes Irazusta Egiazabal, Oiarzungoa.
- 24ean: Jose Joaquin Genua Goikoetxea, Hondarribikoa eta M.^a Juncal Parra Vazquez, Irungoa.

UZTAILA

- 8an: Jose Antonio Lasagabaster Eloise, Irungoa eta Izaskun Iridoi Olai-zola, Hondarribikoa.

HERIOTZAK

EKAINA

- 5ean: Ignacio Uranga Olaziregi, 80 urtekoa Zurubi-Gain, 39
- 11ean: Juan Olasagasti Ezenarro, 76 urtekoa Ugarte Etxea - Mendelu
- 17an: Patrocino Lekuona Zubillaga, 75 urtekoa Arrantzale Auzoa 30
- 23an: Eloisa Coque Avila, 87 urtekoa San Gabriel Egoitza
- 25ean: Guadalupe Angulo Angulo
- APIRILA
- 5ean: Benito Garin Alberdi, 73 urtekoa Miramar, 1
- 10ean: Paula Manterola Iparragirre, 75 urtekoa Manziategi-Zar Baseria. Jaizubia
- 13an: Angel Lekuona Zubillaga, 84 urtekoa San Pedro Kalea 69,

KANPOSANTUA (eta IV)

1922. urteik, Udalak kanposantu berria egin edo zegoena handitzeko premia ikusten zuten, baina aurrekoetan aipatu ditugun arrazoiak zirela eta ez zen egingerik izan.

Urteak aurrera joan ahala, zabaldu beharra gultziz beharrezko gertatu zen, izan ere, Alonso Arburu jaunak, Kanposantua zabalitzeko proiektuaren egileak, bere txostenean zioenenez "dagoena ez da nahikoa hildakoak hartzeko eta indarrean dagoen 'Reglamento de Policía Sanitaria Mortuoria' delakoak agintzen dituen zerbitzuak ere falta ditu".

Proiektu hau 1986ko abenduaren 4eko Plenoan onartu zen. Kanposantua 3.000 bat metro karratuz zabalitzen da orangoaren ipar-mendebaldera eta lanei ekin aurretik lurraldearen azterketa geoteknikoa eginen da.

Proiektuak bi zatit ditu ongi berehiki: 1) Sarrera-ingurua eta ataria 2) hilobien tokiak.

1) Inguruan bi etxe biki egingo dira zerbitzuak egiteko. Etxe hauek elkarrekin eta erdian dagoen elizabakoarekin (erabat berrituko dena) Kanposantu aurreko hormari atxikia egongo den portxe baten bidez lotuko dira.

Ataria harrizko hesi batek mugatuko du eta barruan apartamentua antolatuko da. Eginahalak egingo dira oraingo landareak gordetzen eta landare berriekin osatzen.

2) Hilobien lekua munoa oraingo kanposantuen pareraino jekuz egingo da, 2,5 metrotan alegia. Ipar-mendebaleko hondoa bertan nitxoak eginda geldituko da, eta gainerakoan bakoitzak 6/7 gorpuz edukiko dituzten hilobiak egingo dira. Kanpotik harri naturala (Pitillasko hareharria) edo artifiziala izango dute.

Zabalgunearen erdian hormigoi armatuzko hezurtegi bat egongo da, eta gainean gurutze bat jasoko da, hormigoizkoa hau ere eta harri landuak dituen.


Saneamendu sistema bakarra izango da, ur zikinak eta euritakoak ubide beretik sare orokorrean isuriko direla. Hilobien aldean drenaje sakon bat egingo da eta harri kapa lodia batean zehar hormigoizko tubo poroak sare orokorrera eramango dituzte ur likidatuak.

Proiektu osarean oraindik eskatzaileen kontura izango da.

1987ko ekainaren 25ean Udalak, Kanposantuko handitze lanak, A Fasea, "hilobien aldeak", Alonso Arburu arkitektoaren proiektuaren arabera, Cubiertas y MZOV S.A. delakoari adjudikatzea erabaki zuten.

Lan, Osasun eta Segurtasun Sozialeko Sailak, Kanposantua handitze dela eta, Udaleria baidalitako txostenean honela dio: "Gobernu Ministeritzaren uztailaren 20ko 2263/74eko Dekretuak aipatzen duen Hildakoen Osasun Polizia Araudia betetzen du".

Obrak lurraz zulatuz hasi ziren eta arian arian eskatutako lanak burutu ziren. Lanok bukatzekotan zirela, sepulturak eskatu zituztene-



tako batzuk ez zeuden ados egindako lanekin eta honako hauek eskatu zituztionez Udalar:

a) Hilobien hondoko harrobi-harri kapa kentzeko eta haren ordez zementozko kapa bat, erdian isurbide bat duela, jartzeko.

b) Hilobiak barrutik raseatzeko.

c) Hilobietako harlosak aldatzeko, zementozkoak jarri bait ziren erdian belarra zutelarik.

d) Eskatu zituztenak panteoiak zirela, beraz, sepulturak 20 cm. gutxienez igotzeko edota bestela lurra neurri berean jaisteko.

e) Hezurtegi indibidualak egiteko, ez bait zeuden konforme komunarekin.

Udalak onartu zuen ilobi hondoko harriak kendu eta zementoa jartzeko isurbide batekin,

aldi berean Pitillasko 224 harlosa enkargatu zituen beste horrenbeste ilobi estaltzeko, gainerakoak lehengo estalkiekin utzita, hainbatek horrelakoak nahiago zituzten eta. Hau egindakoan, zozketa eguna erabaki zuten eta zozketari jakin arazi zien, baita bertan parte hartzeko bete behar zituzten baldintzak ere.

1988ko abenduaren 29an, zozketa egunean, egindako lanekin konforme ez zeudenen batzorde bat agertu zen udalarekin, abokatu batek lagunduta, eta zozketa suspentitzea proposatuz. Proposamena ez zen onartu. Egun berean eta esandako orduan, goizeko 10etan, sepulturak emateko zozketa egin zen Udak Kanposantuan. Egindakoarekin konforme ez zeudenetako batzuek ez zuten zozketan parte hartzerik nahi izan.

Egun hori igarota, lehen aipaturiko batzordeak bere abokatuarekin batean honako eska-bideak egin zituzten Udalar: a) Abenduaren egindako zozketa balio gabe uztea. b) Eskatzaile bakoitzari diru kopuru bat itzultzea. c) lurperatze bakoitza bereizteko plantak jartzeko (Udalak berak ere bazuen asmo hori). d) ilobi bakoitzean hezurtegia egitea.

Udala eta Batzordearen artean izandako elkarriketen ondorioz honako akordioak hartu ziren.

1) Ilobi bakoitzean hezurtegi bat egitea Udalaren kontura, lan egingo duen kontratistari aurreko abenduaren 31 baino lehen buka ditazala eskatuta.

2) Udalak bere kontura lurperatze maila bakoitza bereiziko duen plantak jartzeko (esan du-danez, lehendik ere erabakia zegoen hau).

3) Zozketa bat egitea 1988ko abenduaren 29koaren baldintza beretan. Bost urtean puskatzen diren harlosak Udak oraindik ditu, berriz ere puskatzea ilobi erabiltzaileen errurik gabe gertzen delarik.

Zozketa 1989ko ekainaren 20an izan zen, Udak Kanposantuan, hamaiketan.

Kanposantuen bedeinkazioa uztailaren 15ean egin berria da.

1989ko uztailaren.
SORKUNDIF

SANTIAGOKO AFARI-MERIENDA, DUELA MENDE ERDIA

Santiago jaia konotazio berexia du gure hirian. Egun honetan, San Pedro egunez Jasokunde eta Sagarrondoaren Andramariaren elizako sakristian aukeratutako arrantzaleek, beren karguen jabe egiten dira leku berean. Hara, elkarturik joaten dira, aurrean arraunlari goardia, beren "gabaldino" gorriak jantzirik, kutxaren zaintzaile, aurrean dutelarik, kutxa, neska edo batek buru gainean airoso damaralarik.

"Kutxa entrega" da zeremonia honi marifelen artean ematen zaion izena. Izan ere, dokumentu ("tokamentu" arrantzaleentzat), diru, benetakoa, eta altxor guztien entrega egiten bait zen, lehengo Aba Nagusiaren aldetik berriari, den-denok arduraz kutxa barruan sartuta zeudela, hiru zerrallaz itxita, giltzak, urte osoan zehar, Aba Nagusiak berak eta bi itsasoko Alkateek gordetzen zituztela.

Iragan aldiaz idazten dut, izan ere, halabeharrez, garaioan dirua kontu konfrontetan egoten bait da, eta altxorak ondo gordeta nonbaiteko kaxa fuertean. Iraganeko historia da kutxa zaharra ere, duela hogeit bat urte arinagoa jarri bait zuten haren ordeiz. Izan ere, kutxa eramalle lirainek, labaderoko libixa buru gainean eramaten beren amak eta amonak bezain ohitua ez zenez, don Blaseko maldara (Juan de Labordaren deitura herri hizkeran) iritsitakoan, porrot egiten bait zuten zamaren azpian, kutxak azkenean hurbilen zihon abai tikiaren bizkarrean bukatzen zuelarik.

Kutxa berriarekin ez dago halako arazonik eta itzulian, aldiko neska, jira-bira batzuk ere egiten ditu oinen gainean Kofradiako arkupe-



Lekeitioko Kaxarranka San Pedro egunez (J. Apraiz).

an, ikusgarria da ohitura hau eta azterketa xehegoa ere merezi du. Gure herrian, emakume batek egiten du dantza arrantzaleen dokumentuak daukari kutxaren azpian. Lekeitioko berriz, kofradiako liburuak (hangoa ere San Pedoren izeneko kofradia), era berean kaxa batean ere gordeta, arrantzaleek eraman ohi dituzte. Eta, kargu berrien entregako zeremonia bukatutakoan, dantzari batek "kaxarranka" ezaguna dantzatzen du, kutxaren tapa gainean. Jai bien jatorria berdintsua izango da, noski.

Urteak igaro ahalai jaiaeren ordua atzeratu

bada ere, arratsalde erdia izaten da oraindik kofradia kide eta inbitatuen ehunkada luzea Hermandadeko mahaietan (dagoeneko ez bait dira beren egoitzan saritzen) entremesak, langosta, solomilloa eta postreak dastatzeko eseritzen direnean. Solomilloarena ohitura berria da, oilasok, ia eguneroko jaki bihurturik, bere ohore soziala galduta zuenetik.

"Afari-merienda" zeritzan ohitura zuhurrari eusten diote gure arrantzaleek, mendariaren ondoko janaldian; urdiala hutsik egonik eta eguerdiko bazkaria ahaztuta, oheratzeko ordu dexente falta direla janaldi oparoa zilegi da, djestia eta otoruntzaren osteko ondorioak lotara orduko gaindituta egongo bait dira.

Aipaturiko otordua, duela gizaldi batzuk, eliz dorreko ganbaran eta terrazan egiten omen zen, toki egokia haizea hartzeko bapo jan eta edan ondano. Aurpegi zaildu eta gorritu haiek, baita jantzi gorriak ere, frungo baratzee-tatik nabariko ziren, eta horik sortuko zen harakoa esaera hura: "Hondarribiko kanpantorian, karramaruak dantzan".

Ez daukat argibide zehatzik garai hartako jakien berri emateko. Nere aitak, berriz, hogeitamararren hamarkadan egiten zena utzi diti. Zopa (lehen ez bait zitekeen otoruntza onik egon, hasierako isurkari berorik gabe), entremesak, tortilla (urdaiazpikozkoa gehienetan), birrik, biptioiak, frejituak (bertako prestaera ederra galduta duguna!) eta postreak.

Juan Jose Lapitz



AMA GUADALUPEKOA KONTXAN TXAPELDUN

Uztailaren 16an Karmengo estropadak izan ziren Donostian eta Hondarribiak atzean utzi zituzten Donostiako beste lau traineruak. Estropati txandatan erabaki zen: batetik Urki-Koipe eta Fortuna eta, bestetik, Hondarribia, Arraun-Bingo Londres eta Donostia-Valbemar. Urki-Koipek erraz irabazi zion Fortunari 32 segunduta aterata.

Borroka latza bigarrenaren izan zen, Hondarribia eta Donostia-Valbemaren artean. Lehiaketa ikusgarrian aritu ziren estropada guztian, baina azkenean gureak nagusitu ziren diferentzia segunduta batera iritsi ez bazen ere.

Sailkapena eta denborak honela gelditu ziren: 1. Hondarribia, 20-59-94; 2. Donostia-Valbemar, 21-00-90; 3. Urki-Koipe, 21-11-02; 4.

Fortuna, 21-43-66; 5. Arraun-Bingo Londres, 22-12-37.

Eutsi gogor, mutilak!!

EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK

Joan den ekainaren 15ean Europako Parlamenturako egindako hauteskundetan honako emaitza hauek gertatu ziren Hondarrribian:



	UDALETXEA		KOFRADIA		BITERI		MENDELU		GUZTIRA	
EA	257	26%	427	33%	516	28%	251	19%	1.451	26,5%
HB	258	26%	307	24%	493	26%	336	26%	1.394	25,5%
PNV	142	14%	200	16%	241	13%	115	9%	698	12,7%
EE	131	13%	121	9%	240	13%	171	13%	663	12,1%
PSOE	110	11%	68	5%	133	7%	230	17%	541	9,9%
PP	26	3%	50	4%	108	6%	60	5%	244	4,5%
CDS	18	2%	22	2%	31	2%	36	3%	107	2,0%
RUIZ M.	10	1%	22	2%	27	1%	9	1%	68	1,2%
Besteak	35	3%	41	3%	61	3%	74	6%	211	3,9%
Zuriak	11	1%	17	1%	19	1%	21	2%	68	1,2%
Nuloak	5	0%	8	1%	3	0%	14	1%	30	0,5%
Botuak	1.003	100%	1.283	100%	1.872	100%	1.317	100%	5.475	100,0%
Errolda	1.720		2.064		3.574		2.684		10.042	
Absten.	717	42%	781	38%	1.702	48%	1.367	51%	4.567	45,5%

Bost partidu nagusien botuak 1987an Europarako emandakoekin alderatuz gero, partidu guztiek gaitu egin dutela ikusiko dugu. PNV izan ezik, dextera irabazi egin bait du. Galeraren proportzioa ere, botuen arabera da. (87koak, "Hondarribia" aldizkarian 14. alean emandakoak dira):

	1987	1989	ALDEA	
EA	1.858	1.451	-407	-21,9 %
HB	1.765	1.394	-371	-21,0 %
PNV	617	698	+ 81	+13,0 %
EE	765	663	-102	-13,3 %
PSOE	606	541	- 65	-10,7 %



MILA MILIOITAKO

AURREKONTUA

Uztailaren 13ko Pleno Berezian Udalak aurtengo aurrekontuak onartu zituen. Guztira 1.055.372.724 pezetako aurrekontua dugu aurtengo. Kopuruak aldez aurretik batzordeetan aztertu eta erabaki zirenez adostasun osoz onartu ziren Plenoan. Ondoko koadroan ematen ditugu atal nagusien arabera sailkatuta.

1989ko AURREKONTUA

GASTUAK	PEZETAK
1. Langile eta zinegotzien soldatak	278.708.709
2. Gastu arruntak: Udalekoak, eskoletakoak, kalegarbiketa, mantenimendua, semaforoak, argiak, hondartzakoak, jaia	252.341.811
3. Interesak	36.000.000
4. Kultura, Kirolak, Euskara, Gazteria, Hezkuntza, Ingurunea, Okupazio Lantegiak, Eskola-garraiak, Gizarte Laguntza, Langabetu eta Jubitatuak laguntzak, Ikastaroak, etab.	62.886.250
6. Inbertsioak	404.435.954
8. Enplegatuei aurrerakinak	5.000.000
9. Maileguen amortizazioa	16.000.000
GUZTIRA	1.055.372.724

DIRUSARRERAK

1. Zuzeneko zergak: Hirilurrena, Industrien eta Gainbalioarena	144.802.707
2. Zeharkako zergak: Zirkulazioa eta publizitatea	28.265.350
3. Tasak: Zakarriketa, Obra-baimenak, ura, aparkalekua, bide publikoa okupatzeagatik etab.	148.897.550
4. Diputazioak ematen duena	335.688.026
5. Leku publikoetan saltokiak eta antzezoak jartzea	20.035.400
7. Superavit, Kanposantu berriko tasak, E. Jauritzairenen subentzioak markesinentzat, Langabeziarentzat, Baserrien elektrifikazioa	65.029.819
8. Enplegatuek itzultutakoak	700.000
9. Inbertsioetarako aterako diren maileguak	311.953.872
GUZTIRA	1.055.372.724